

“Lan-ingurunean osasun mentala zainduz”
jardunaldia

Donostia, 2024ko urriaren 25a

Arrisku psikosozialen azterketa genero-ikuspegia kontuan hartuta

Jon Abril Olaetxea – Elhuyarreko koordinatzaile nagusia
Izane Barragán Campos – Elhuyarreko Pertsonak Saileko arduraduna

elhuyar
ezagutuz aldatzea




HELBURUAK

Elhuyarren **osasuna eta bizi-kalitatea** zaintzea, mantentzea eta hobetzea.

Elhuyarreko kideon osasunaren kudeaketa **eredu osasungarri eta erresilienteetara** bideratzea.

Osasuna eta ongizatea kaltetu dezaketen **arriskuak identifikatzea**, horiei aurre egitea eta hauek **prebenitzeko estrategiak garatzea**; arrisku horietan **genero-rol eta –estereotipoek zein genero-hezkuntzak duen eragina** aztertu eta kontuan izatea.



PROZESUA

TALDE ERAGILEAREN OSAERA:

- Koordinatzaile nagusia
- Pertsonak Saileko arduraduna eta teknikaria
- Berdintasun-teknikaria (planaren arduraduna)



Bi galdetegi,
langile guztiek
aldi berean



Elkarrizketak



Focus-groupak



Emaitzen
analisi eta
neurriak
proposatzea



GENERO-IKUSPEGIA

- Datuak sexuaren arabera bereizita jaso eta ustiatu
- Gizarteko genero-arrakalak eta horien ondorioak kontuan hartuta egin dira irakurketak
- Genero-arrakalen eta zaintzaren arteko gurutzaketa. Zaintza aldagaietako bat

KUDEAKETA AURRERATUA

Kudeaketan integratua: Urteko kudeaketa-planean, pertsonen laneko arriskuen prebentzioan eta osasunaren zaintzaren estrategian txertatua.

Parte-hartzea: Erakundeko langile guztiek parte hartu dute galdetegiak betetzen eta ordezkaritza zabal batek bakarkako zein taldeko elkarrizketetan.

Arrakasta-faktoreak: Koordinazio Gunearen inplikazioa, Pertsonak Sailaren dedikazioa, eta berdintasun-teknikariaren (berdintasun-planaren arduraduna) parte-hartzea.

Transferentzigarritasuna: Edozein erakundek lanaren faktore psikosozialek erakundeko emakume eta gizonengan inpaktu bera duten aztertzekeo baliagarria.

Ikaskuntza: Emakumeekin ez zen berariazko saiorik egin. Talde-elkarrizketa bat egin zitekeen genero-ikuspegia lantzeko.

ALDERDI BERRITZAILEAK

Erakundeetako osasunaren arloan egiten diren azterketetan genero-ikuspegia txertatzea:

- Emakume eta gizonen osasunean (fisiko zein psikosozialetan) genero-sistemak duen eragina aztertu dugu.
- Bakoitzak bizi dituen errealitateak bereiz aztertu dugu.
- Hainbat egoera psikosozial, estres-maila, lan-mota, azkartasun-mailatan... aritzen diren erakunde feminizatueta esku-hartze eraginkorrak proposatzeko bidea zabaltu dugu.
- Lan-eremu feminizatueta sortzen diren berariazko osasun-arriskuak plazara atera, hauek emakumeengan duten eragina ikusarazi, eta hauekin amaitzeko estrategien beharra nabarmendu dugu.



AZTERTUTAKO ALDERDIAK

Lanaren eskakizunaren pertzepzioa: gehiegizko lana, denbora falta, lanaren erritmoa, intentsitatea, eskakizun psikologikoa...

Lanaren gaineko eragin-maila: zereginen gaineko kontrola, erabakiak hartzerakoan autonomia, lana nola egin hautatzeko aukera...

Erakundean egindako ekarpenagatik jasotako onuren pertzepzioa: estimua, soldata emozionala, mailaz igotzeko aukera, garapenerako aukerak, soldata...

Lankideekin eta arduradunekin harremana: komunikazioaren kalitatea, pertsonen arteko harremanen kalitatea...

Estresa: estres-maila orokorra, laneko presioari egozten zaion estresa, lanpostuaren erantzukizunei eta betekizunei egozten zaion estresa, egitura, lanaren diseinu eta antolaketari egozten zaion estresa, betebeharrak, zereginak egiteko denborak/epeak...

AZTERTUTAKO ALDERDIAK

Aldagaiak:

- Ardura-postua
- Zaintza-ardura
- Lanaldia
- Sexua

Aldagai guztiek izan dute eragina emaitzetan, lanaldiak izan ezik.

INDARGUNEAK

- Lan-giro ona
- Harreman-estilo osasungarria
- Erakundearen balioekiko eta misioarekiko konpromisoa
- Kide izatearen sentimendua, proiektuarekiko atxikimendua
- Inpaktu soziala

HOBETZEKOAK

- Lan-kargen kudeaketa
- Lan-erritmo eta lan-kargak erakundearen bideragarritasunarekin orekatzea

ONDORIOAK

Elhuyar, gaur egun, osasun psikosozialari dagokionez, **maila osasungarrian** dago. Ardura-postuetan eta aholkularitza-lanetan dabiltzanak lanaren eskakizunaren pertzepzioan alerta positiboagoak (gehiegizko lana, denbora falta, erritmo eta intentsitate altua...).

Oro har, **emakumeek estres-maila altuagoa** adierazten dute. Etxeko lan-karga handiagoak bikoiztu egiten du estresa. Gizartearen genero-rolek eta gizarte-espektatibek ondorioak dituzte.

Elhuyarreko lankide guztiek **genero-ezaugarriek laneko arrisku psikosozialen esposizio-mailetan duten eraginaz** jabetzeko eta honen inguruan hausnartzeko aukera izan dugu.

Emakume kategoriaz gain, **antzinatasunak, adinak, ardura-postuek** ere zeharkatzen dituzte estres-maila altuenak dituzten pertsonak.

AURRERA BEGIRA

Arriskuekiko esposizioak emakumeei eta gizonei desberdin eragiten dienez, eta, beraz, osasunean ondorioak desberdinak direnez, **genero-ikuspegia kontuan hartuko dugu osasun-kanpainak diseinatzekoan** eta prebentzio-praktikak aplikatzekoan.

Estres-maila gutxitzeko neurriak proposatzeko **lanketa** egin da, berariaz lantalde bat osatuta. Bertako ekarpen batzuk **barne-araudian** jaso dira, adibidez:

- Desorduetako eta asteburuetakoko lanorduen konpentsazioa
- Adina eta lan-kargen banaketa, joan-etorriak murrizteko neurriak, proiektuak konpartitzea...
- Proiektuen esleipenetarako irizpideen berrikusketa
- ...

Mila esker



i.barragan@elhuyar.eus
j.abril@elhuyar.eus

www.elhuyar.eus